

# OSASUN GARRAIOAN ARRISKU BIOLOGIKOARI AURREA HARTZEKO NEURRIAK

## NEURRI ESTANDARRAK

### 1 ESKUAK GARBITZEA.

Eskuak behar bezala garbitzea osasun laguntzarekin loturiko infekzioei aurrea hartzeko neurririk eraginkorrena da.



### 2 ESKULARRUAK ERABILTZEA.

Eskularruak erabiltzeak ez du ondoren eskuak garbitu beharretik salbuesten.



Neurri orokorrak dira, xede dutenak mikroorganismoen transmisio arriskua murriztea zeinahi pazienteren osasun arretan, edozein dela ere haren diagnostikoa, eta aplikatzen dira odolarekin, gorputz fluidoekin, mukosekin edo urratutako azalarekin kontaktua egonen dela aurreikusten den bakoitzean.

Hartara, paziente guztiakin hartu beharreko neurriak dira.

### 3 MASKARA ETA BEGI-BABESAK ERABILTZEA.

Pazientearen arretan egiten diren maniobretan aerosolak eta/edo zipriztinak sortuko direla aurreikusten den bakoitzean.



**MANTAL IRAGAZGAITZA** erabiliko da egiten diren prozeduretan aerosolak eta/edo fluido biologikoen zipriztinak sortuko direla eta laneko arropa kutsatzeko arriskua dagoela aurreikusten den bakoitzean.




### 5 LANGILEEN EBAKIAK ETA ZAURIAK APOSITU IRAGAZGAITZEKIN ESTALI BEHAR DIRA.



### 6 LANGILEAREN ETA PAZIENTEAREN ARNAS HIGIENERAKO NEURRIAK.

### 7 OBJEKTU EBAKITZAILEAK ETA ZORROTZAK SEGURTASUNEZ ERABILTZEA.

### 8 HONDAKINAK BEHAR BEZALA DEUSEZTATZEA.



### 9 MATERIALA GARBITZEA/DESINFECTATZEA.

## KONTAKTU BIDEZ

### 1 JARRI BEHIN ERABILTZEKO MAINDIREA

pazientea lekuz aldatuko den ohatilan edo aulkian. Pazientea estaltzeko erabiltzen den maindirea ere behin erabiltzekoa izanen da.

Pazientea lekuz aldatu eta gero, bota bi maindiren horiek, eta garbitu gainazalak desinfektatzailean bustitako eskuazatar batekin.

Tapaki bat erabiliz gero, lekualdaketa bukatu ondoren kendu eta eraman garbitzera.

### 2 GARBITU ESKUAK

soluzio hidroalkoholikoekin edo xaboi antiseptikoarekin pazientearekin eta/edo haren ingurunearekin kontaktua izan aurretik eta ondoren, eta eskularruak kendu eta gero.

### JARRI ESKULARRUAK

pazientearekin kontaktua izan behar duzunean, kendu kontaktu hori amaitu ondoren.

Garbitu eskuak.

### 4 Aurreikusten denean pazientearekiko kontaktua estua izanen dela, erabili **BEHIN ERABILTZEKO MANTALA.**

Ondoren, kendu mantala eta garbitu eskuak.

### 5 Ahal denean, **zainketa ez-kritikoetako materiala** (urraturik gabeko larruazalarekin kontaktua duena) **erabilera eskusibokoa** izanen da. Ezinezkoa bada, materiala erabili ondoren protokolaren arabera garbitu eta desinfektatu.

## TRANSMISIO

## MEKANISMOETAN OINARRITZEN DIREN NEURRIAK

Modu osagarrian aplikatuko dira, **betiere** neurri estandarrei gehituta.

## TANTA BIDEZ

### 1 JARRI PAZIENTEARI **MASKARA KIRURGIKOA.**



### 2 GARBITU ESKUAK

soluzio hidroalkoholikoekin edo xaboi antiseptikoarekin pazientearekin kontaktua izan aurretik eta ondoren, eta eskularruak kendu eta gero.



Pazientearen arnasbidearen egoera arriskutsua bada eta ezin badu maskararik eraman, hari **lagun egiten dion pertsonak eta/edo osasun langileak MASKARA KIRURGIKOA** eraman beharko du(te).

### 3 Mukosekin edo urratutako azalarekin kontaktua izanez gero, erabili **ESKULARRU garbi ez-esterilak.**



## AIRE BIDEZ

### 1 JARRI PAZIENTEARI **MASKARA KIRURGIKOA.**



Pazientearen arnasbidearen egoera arriskutsua bada eta ezin badu maskararik eraman, hari **lagun egiten dion pertsonak eta/edo osasun langileak FFP2 MOTAKO ARNAS BABESERAKO MASKARA** eraman beharko du(te).



### 2 GARBITU ESKUAK

soluzio hidroalkoholikoekin edo xaboi antiseptikoarekin pazientearekin kontaktua izan aurretik eta ondoren, eta eskularruak kendu eta gero.

### 3 Mukosekin edo urratutako azalarekin kontaktua izanez gero, erabili **ESKULARRU garbi ez-esterilak.**

